

## ZER DA MUV?

Europako Batzordeak Horizonte 2020 programaren esparruan finantzaturako ikerketa proiektua izanik hasiera batean, MUV B Corp 2020. urtean sortu zen, hiri mugikortasun iraunkorra mugimendu global bihurtzeko eta erronka gero eta handiagoei erantzuteko. MUVek ohituren aldaketa sustatzen du mugikortasun iraunkorragoa eta osasungarriagoa lortzeko, tokiko komunitate eta enpresen, hurbileko saltokien eta mugikortasun kudeatzaileen parte hartze aktiboaren bidez.

## NOLA FUNTZIONATZEN DU?

Aplikazio mugikor baten bidez jokatu duzu.

Puntuak lortuko dituzu modu iraunkorrean mugitzen zaren bakoitzean: oinez, bizikletaz, garraio publikoa erabilita. Horrela, herritar parte hartzaile, digital eta iraunkor bihurtzen zara. Gainera, zenbat eta puntu gehiago lortu, aukera gehiago izango dituzu sari bat lortzeko zuretzat edo zure taldearentzat.

## JOKATU TALDEAN!

Ez duzu bakarrik jokatzeko, zure unibertsitateko beste pertsona batzuk zurekin lehiatzen dira.

Izan zaitez MUVer! Hartu parte Europako txapelketan zure unibertsitatea iraunkorrenetako izan dadin.

## BAINA, ZEIN DA ERRONKA?

MUVek zure unibertsitatea eta ingurunea aldatzen parte hartu nahi du, eta, horretarako, ohituren aldaketa sustatzen du, mugikortasun iraunkor eta osasungarriagoa lortzeko.

MUV aplikazioarekin aritzean mugikortasunari buruzko datuak sortzen dira, zure unibertsitatearen eta ingurunearen eskura egongo direnak modu anonimoan, herritarrak ardatz izango dituzten hiri politika eraginkorragoak diseinatzen laguntzeko.

## BERAZ, BALDIN BAZARA...

- ✓ ... MUVer, mugikortasun iraunkorreko txapeliduna izan zaitezke zure unibertsitatean, sari bat jaso dezakezu, eta zure unibertsitatea iraunkorrenetako bat izan dadin lagundu.
- ✓ ... hiri planifikatzailea, mugikortasun kudeatzailea edo toki administrazioa, "entrenatzaile" bihurtu zaitezke. Horrela, parte hartzaileei irabazten lagundu ahal izango diezu, tokiko komunitatearekin elkarlanean jardungo duzu eta, halaber, unibertsitateko kideen joan etorri buruzko informazioa eskuratuko duzu.

IRAILAK 20 - AZAROAK 13

ZURE UNIBERTSITATEA **14** VS **06** EUROPAKO UNIBERTSITATEA



## XEDEA

- ☆ Herritarren/inguruko eremuaren konpromisoa eta parte hartzea denen arteko sortze eta definitze prozesuan.
- ☆ Unibertsitateko kideek ohiturak aldatzea, pizgarrien bitartez.
- ☆ Unibertsitatearen mugikortasun politika berriak herritarrentzat.

## EMAITZAK

- ☆ Plataforma anitzeko aplikazioa unibertsitateko kideentzat.
- ☆ Airearen kalitatea egiaztatzen duten kontrol estazioen sarea.
- ☆ Mugikortasunari buruzko datu anonimoen bilketa.

## ERAGINA

- ☆ Zure unibertsitateko kideekiko elkarlana hobetzea.
- ☆ Planifikazio prozesu berriak, mugikortasun iraunkorri buruzko datuetan eta irtenbideetan oinarrituak.
- ☆ Ariketa fisikoa eta garraio publikoaren erabilera areagotzea.
- ☆ Isurketa kutsagarriak murriztea unibertsitatean eta bere inguruan.

